

BURUTUTAKO JARDUERAREN LABURPEN-TXOSTENA

- **Jardueraren izena:** “Irakaslegaien hizkuntza gaitasuna kezka iturri” solasaldi girotua
- **Data eta ordua:** 2023/01/18, 9:30-11:30.
- **Lekua:** Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultateko (HEFA) Areto Nagusia.
- **Antolatzaileak:** HEFAko euskara batzordetik sortutako HIZGAI taldeak antolatu du solasaldia.
- **Helburua:** Fakultateko ikasle-irakaslegaien euskara gaitasunarekiko eta erabilerarekiko sentsibilizazio kanpaina bat abiatzea.
- **Gastuak¹:**
 - **Belen Urangaren hitzaldia:** 150 + BEZ = 181, 50 euro
 - **Nerea Arriolaren monologoa:** 800 euro + BEZ = 880 - Atxikipena = 760 euro
- **Zabalkundea:** Gabonetako oporren aurretik eta ondoren HEFA IIko irakasleen mailina erabili zen eta dekanotzatik ekimenaren hitzordua nahiz gaitegia zabaldu. Era berean, ekimenaren aurreko astean kartelak ipini ziren fakultatean, bereziki irakasleen bulegoen pasabideetan.
- **Solasaldiko gaiak eta parte-hartzaileak:**
 0. **Aurkezpena eta dinamizazioa:** Amaia Elizalde, HIZGAI taldeko kide eta koordinatzailea
 1. **HIZGAI ekimenaren orain arteko ibilbidea** (Ana Gandara, HIZGAI taldeko kide eta koordinatzailea)

Solasaldiari hasiera emateko, HIZGAI ekimenaren eta horren bueltan lanean ari garen irakasle taldearen berri eman zen. Hala 2017/2018 ikasturtean sortu zenetik gaur arte egindako ibilbidearen xehetasunak ezagutzera eman ziren, baita 2017/2018 ikasturtean gauzatutako froga diagnostikoen emaitzak zabaldu ere.

 2. **Unibertsitate eremuko euskararen erabilera** (Belen Uranga, Soziolinguistika Klusterreko kidea)

¹ Ikus aurrez igorritako fakturak.

Soziolinguistika Klusterrak 2017-2018 ikasturtean EHUko hainbat fakultatetako eremu ez-formaletako hizkuntzen erabilera behatzeko egitasmoa aurkeztu du. Era berean, ikerketa horretan bildutako datuak azalduak izan dira, unibertsitateko eremu ez-formaleko euskararen erabilerari dagozkionak. Arreta berezia eskaini zitzaien hezkuntza fakultateei, testuigurua kontuan hartuta.

3. Irakaslegaien jarrerak euskararekiko (Miren Artetxe, Garbiñe Bereziartua eta Amaia Serrano, HIZGAI taldeko kideak)

HEFA IIko ikasleek euskararekiko duten jarrerari buruzko ikerketa soziolinguistiko kualitatibo-kuantitatiboan datuak plazaratu ziren tarte honetan. Hala, ikasleek duten euren euskara gaitasunarekiko autopertzepzioari buruzko iritzia nahiz, orokorrean, euskararen ingurukoa izan ziren mintzagai.

4. HEFAIIko irakasleen iritzia (Itziar Elorza eta Itziar Iriondo, HIZGAI taldeko kidea)

Solasaldia baino hilabete lehenago, HIZGAI taldeak galdetegi bat prestatu zuen Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza Graduetako irakasleen artean zabaltzeko. Horren bidez, irakasleen euskara gaitasunak irakasle horiengan hartzen duen arreta nahiz haien irakasgaietan duen lekua zein den jakin nahi izan zen. Solasaldian emaitzak plazaratu ziren eta horien inguruan hausnartu.

5. Monologoa (Nerea Arriola, aktorea)

Solasaldia itxi eta girotzeko, gaiari buruz eta ekimen honetarako espreski sortutako umorezko monologo original bat izan zen.

- **Oharrak:** Solasaldiak arrakasta izan du eta amaieran irakasleen arteko iritzi-truke interesgarria izan dugu gure irakasleen euskararen erabilerari eta gaitasunari buruz (egoera zein den, zer egin litekeen, irakasgai ezberdinetan zein inplikazio dauzkan gaiak eta abar). Hedabideek ekitaldiaren berri izan dutenean ere interesa azaldu dute gaiaren inguruan eta HIZGAI taldeko kideekin elkarrizketak eskatu dituzte.

- Ekimenaren kartela

IRAKASLEGAIEN HIZKUNTZA GAITASUNA KEZKA ITURRI

HIZGAI ekimenaren orain arteko ibilbidea
(HIZGAI taldeko kidea)

Unibertsitate eremuko euskararen erabilera
(Belen Uranga, Soziolinguistika Klusterra)

Irakaslegaien jarrerak euskararekiko
(HIZGAI taldeko kidea)

HEFAIIko irakasleen iritzia
(HIZGAI taldeko kidea)

...eta amaierako SORPRESA!
(Nerea Arriola Urberuaga aktorea)

**GONBIDATUTA
ZAUDE!!!**

URTARRILAK 18 | 9:30 |
HEFA II-KO ARETO NAGUSIA

- Argazkiak





